

DIRUTZARIK HANDIENA AZPEITIAN BANATU DA BOSGARREN SARI BAT OSORIK SALDU BAITA BERTAKO TABERNA BATEAN

Mila milioi pezeta pasatxo egokitu dira, gehien-gehienak Azpeitian

■ 57.815 zenbakiak 1.044 milioiko saria utzi du Azpeitian; sari txiki askotan oso banatua izan da dirutza hori

■ Ordizian, laugarren sari baten zati bat egokitu da, eta 30 milioi pezeta zabaldu dira horren bitartez

■ Basaurin bosgarren sari baten zati bat egokitu da, bertako 5. loteria administrazioan saldua, eta 7 milioi pezeta banatu dira

Arantxa Iraola / Donostia

EGUERDI partean egokitu zen atzo Euskal Herrira pozik handiena ekarri zuen saria, 12:12etan. Ordurako amaitzen ari zen Espainiako Gabonetako Loteriako zozketa, eta sari nagusienak egokituak zirenez jende gehienak ez zuen jaramon handiegirik egiten. Bapatean, laugarren bosgarren saria egokitu zen, ordea, falta zen azkenengo sari nagusia, eta zozketa egiten ari ziren Paloma Fernandez eta Scheredaze neskatala-txoek 57.815 zenbakia kantatu zuten, oso-osorik Azpeitiako Eguzkitza tabernan saldua.


Horri esker 1.044 milioi pezeta egokitu dira Azpeitian (41 milioi libera pasatxo). Zenbaki saritua oso-osorik -145 serie hain juxtu- Azpeitian saldu da, Eguzkitza izeneko tabernan. Bertako jabeek atzo aditzera eman zuten, jende gehienak 3.000 edo 1.000 pezetako partizipazioak erosi zituen, atzo, beraz, Azpeitia festa handia zen, sari txiki askotan banatu baita bertan dirutza handia.

Gainerakoan, diru gutxi utzi du Espainiako Gabonetako Loteriak Euskal Herrian. Guztira 200.000 milioi pezeta zeuden saritan banatzeko (8.000 milioi libera) baina urruti samarrera joan dira gainerako sari gehienak. Bakanak eta txikiak izan dira oso Azpeitiako az gain egokitu diren sariak.

Ordizian eta Basaurin, poz txiki bi

Esate baterako laugarren sari baten zatitxo bat egokitu da Ordizian, bertako 1. administrazioak saldua, eta 30 milioi pezeta utzi ditu sari horrek udalerri gipuzkoar horretan (6 milioi libera).

Kontentu zegoen atzo bertan administrazioako ardura-



JUAN HERRERO / EFE

Eguzkitza tabernako nagusiak eta zenbaki sariduna saldu duen loteria-saltzailea —eskuinean— topa egiten, zenbait bezero begira dituztela.

Irabazia baino galera handiagoa

■ KONTUAK argiak dira, irabazia baino handiagoa izan da Espainiako Gabonetako Loteriak ekarri duen galera. Mila milioi pezeta pasatxo egokitu dira, dezente gehiago jokatu da.

Hain juxtu Euskal Autonomia Erkidegoan guztira 17.346 milioi jokatu dira (693 milioi libera pasatxo) eta Nafarroan, berriz, 3.052 milioi. Erraza da batuketa, 20.000 milioi pezeta baina gehiago jokatu da Hego Euskal Herrian.

dun Inazio Crehuet. «Izan ere, Eguberriak Loteriak zarata handia egiten du, eta oso gustura gaude». Saria ondo banatuta dagoela pen-

Bizkaian batazbeste herriar bakoitzak 9.824 pezeta jokatu ditu aurtan sari honetan eta arabar bakoitzak, berriz, 6.937 pezeta. Gipuzkoan eta Nafarroan txikixeagoa da batazbestekoa, 6.000 pezeta ingurukoa hain juxtu.

Nolanahi ere, aurtan berriro ere galtzen atera dira herritar gehienak. Ilusioa diru bihurtzeko asmoa asmo hutsean geratu da eta iazko sarien disdira handiak erdoil kolorea hartu du. Azpeitian, hala ere, hori poza.

tsatzen dutela esan zion atzo EUSKALDUNON EGUNKARIARI. «Hementxe saldu baitugu, eta seguru askien banakako dezimotan salduko genuen».

Sari nagusiak

Saria	Zenbakia
1.SARIA (300 milioi serieko)	65.379
2.SARIA (144 milioi serieko)	17.913
3.SARIA (72 milioi serieko)	18.417
4.SARIA (1) (30 milioi serieko)	11.740 (Zati bat Ordizian)
4.SARIA (2)	62.944
5.SARIA (1) (7,2 milioi serieko)	65.586
5.SARIA (2)	61.548
5.SARIA (3)	27.556 (Zati bat Basaurin)
5.SARIA (4)	57.815 (Osorik Azpeitian)

Atzo ilunabarrean oraindik ere saridunen berririk ez zutela zioen. «Baina etorriko dira», azaldu zuen irri artean, «kobratu nahiko dute, eta etorriko dira».

Basaurin, berriz, bosgarren sari baten zati txiki bat egokitu da, udalerri horretako bosgarren administrazioak saldua, eta dirutza txikia

utzi du: 7.200.000 pezeta (280.000 libera pasatxo). Gustura zegoen, hala ere, atzo administrazioako ardura-dun Coral Iglesias. «Izan ere, sari bakar bat egokitu da Bizkaia osoan, eta horixe geuk banatua». Emakume honek ere Eguberriak zozketa honek sortzen duen jakinmina aitatur zuen. «Esaterako